

# 2015eko IRAILAREN 21eko KANBOKO HERRIKO KONTSEILUAREN BILKURA

Herriko Kontseilua, 2015eko irailaren 21ean arratseko 8 orenetan Herriko Etxean bildu zen, Vincent BRU Jaunaren lehendakaritza pean.

Hor direnak: Vincent Bru Jauna, Auzapeza, Christian Devèze Jauna, Eliane Noblia Anderea, Frédéric Bardin Jauna, Pascale Lespade Anderea, Didier Irastorza Jauna eta Henri Saint Jean Jauna, axuantak, Anne-Marie Pontacq Anderea, Vincent Goytino Jauna, Christiane Despériès Anderea, Patrice Dor Jauna, Yolande Huguenard Anderea, Argitxu Hirigoyen Anderea, Jean-Noël Magis Jauna, Corinne Othatceguy Anderea, Peio Etchelecu Jauna, Maryannick Hirigoyen Anderea, Roger Barbier Jauna, Pascal Bourguet Jauna, Véronique Larronde Anderea, Argitxu Hiriart-Urruty Anderea, Philippe Bacardatz Jauna, Nathalie Aïçaguerre Anderea eta Pantxo Michelena Jauna, herriko kontseilariak.

Eskas edo barkatuak: Bernadette Jogleux Anderea eta Eliane Aizpuru Anderea, Axuantak, Jean-Jacques Lassus Jauna, Carmen Gonzalez Anderea eta Camille Jenvrin Jauna, herriko kontseilariak.

Ahalordeak: Jogleux Andereak Noblia Andereari, Aizpuru Andereak Irastorza Jaunari, Lassus Jaunak Auzapez Jaunari, Gonzalez Andereak Larronde Andereari, Jenvrin Jaunak Barbier Jaunari.

## **1 – Saioko idazkariaren izendatzea.**

Bertan diren kideek, Argitxu Hirigoyen Anderea saioko idazkari **aho batez** izendatu dute.

## **2 – Azken saioko bilkura agiriaren onartzea.**

Auzapez jaunak, Kontseiluko kideei iragan 2015eko martxoaren 9an burutu zen bilkurako agiriari buruzko oharrik baden galdetu die. Oharrrik ez duela eskuratu adierazi du.

Aïçaguerre Andereak oharrak helarazi zituela baina horietariko bat ez dela agirian agertzen adierazi du. Epe mugatuko lanpostu sortze bati buruzkoa zen, honentzat “Saint Jean Jaunak, jitekoak ziren bi bilkurak prestatzeko eta batez ere oporraldia hartzen zuelako zela adierazi zuen. Molde horretan azaldua izan zen eta Saint Jean Jaunaren eskasari buru egiteko zela idatzia izan zedin ukatu zitzaigun. Hitz horiek grabaketan dira”.

Saint Jean Jaunak erantzun du “hamabost egunez ez zela hor izanen eta langile horrek eskas hori beteko zuela. Pertsona hori, lanpostu horretan, Kanboko gunea indartzeko eta bi bilkura horiek prestatzeko enplegatu da. Hala aipatu zen gizarte gaietarako batzordean. Hamabost egunez kanpoan izanen zenez konsignak utzi zituen, baina ez zen bera ordezkatua izan zedin, langilea ez baitzen inolaz ere gizarte laguntzaileak edo erizainak... ikustera joanen” erran zuela. Bera egon edo ez, langileak betebeharrak bera lukeela gehitu du.

Auzapez jaunak erran du, kanboarrei, Saint Jean Dk. hamabost egunez joan delako haren ordezkatzeko norbait enplegatu denik ez zaiela sinetsarazi behar.

Aïçaguerre Andereak hala errana izan zela berretsi du.

Hiriart-Urruty Andereak, zergatik ez ote zen zehazki erranikoa idatzia izan galdegin du.

Auzapez Jaunak testuinguruan kokatu behar dela ihardetsi dio, eta hola hasiz gero dena

hitzez hitz idatzi beharko litzatekeela eta horrek bilkura agiri biziki luzeak izatea suposatuko lukeela. Ez du onartzen kanboarrei, Saint Jean Dk. hamabost egunez joan zelako, norbait enplegatu dela sinetsaraztea.

Auzapez Jaunak bozkarazi du.

Iragan saioko bilkura agiria onartu da. Aurkako bozak: Hiriart-Urruty Anderea, Aiçaguerre Anderea, Bacardatz Jauna eta Michelena Jauna.

Gai ordenarekin hasi aitzin, Auzapez Jaunak bi punturen inguruko argibideak eman nahi izan ditu: batetik, aitzineko irailaren 19ko larunbateko egunari buruzkoa, zeinarentzat hautetsi guziek posta elektronikoko bidez berri ukan baitzuten. Egun hori, Association des Maires de France-k antolatu zuen eta bertan hautetsiei zein herritarrei petizio bat aurkeztu zitzairen. Estatuaren zuzkiduren apaltze handia oroitarazi du. Lau urtean, Kanboko herriarentzat, 856 000 €-ko apaltzea suposatuko du. Hara zergatik, François BAROIN AMF-ko lehendakari Jaunak eta André LAIGNEL AMF-ko lehendakariorde Jaunak gonbidaturik, Herriko Etxeak Association des Maires de France-k antolatu zuen egunarekin bat egin zuen. Ez zen aldarrikapen politikorako eguna, Parisen iraganen zen Frantziako auzapezen eguna aitzin gai horren inguruan hautetsiek eta auzapezek zituzten arrangurak adierazteko gogoia baizik. Laurogeita bat izenpetze eskuratu zituzten. Hautetsi batek edo jendartean den norbaitek izenpetu nahi izanez gero, oraindik egin dezakeela gehitzen du.

Bestalde, Irakeko eta Siriako errefuxiatuen gaia aipatu nahi du. Iragan irailaren 8an, pertsona batzuek Estatuak Kanboko herriari gai horren inguruko eskaerarik egin zion galdegin zioten Auzapez Jaunari. Auzapez Jaunak ezetz ihardetsi zien. Ez Prefekturak eta ez AMF-ek ez zutela holakorik egin. Auzapez batzuek haien kabuz interesa jakinarazi zuten eta Barne Ministroak errezibitu zituen. Irailaren 9an, Auzapez Jauna Jogleux Anderearekin eta zerbitzuetako zuzendari nagusiarekin mintzatu zen eta gehiengoaren taldearekin irailaren 14an eta saio hau aitzin. Kanbok errefuxiatu familia bati harrera egiteko indarra egin behar duela uste du. Hargatik herriak familia baten harrera egiteko hautagai izatea nahi luke. Egoitza bat atzeman beharko litzateke, baina korapilatsuena, zenbait hilabeterako engaiamendua litzatekeenez, harrera eta egonaldi baldintza egokiak atzematea da. Irailaren 18an, ostiralez, Departamendu Kontseiluan aipaturiko gaia izan zen hori, eta gizarte gaien ardura duen lehendakariordeak, Departamenduarendako liritekeen ondorioak azpimarratu zituen, babesa eskatzen duten errefuxiatuek RSA eta Departamenduko laguntzak eskuratzeko eskubidea baitute. Prefekturako zerbitzuek, ez dute gaur arte neholako bilkura zehatzik antolatu ahal izan. Familia batzuk Schengen eremuan dira jadanik, horietarik batzuk Parisen edo beste hiri handietan eta oihala etxe handien azpian bizi dira. Hartara, Gurutze Gorriak, Sokorri katolikoak, gizarte laguntzaileak, Departamenduko zerbitzuek, Hezkuntza Nazionaleko zerbitzuek edo C.C.A.S.-ak mobilizatzen jarraituko dute. Haurren eskolatzeari lehentasunetan litzateke. Kanboko herriak, familia bat laguntzeko eta jende hori onartua izan dadin ekimen bat abian ezartzeko gaitasuna du. Erretretan diren frantseseko irakasle batzuek haien burua proposatu dute jadanik. Lana xerkatzen lagunduko dituen zerbitzuak ere plantan ezarri beharko dira.

Auzapez jaunak, babesa galdegiten duten errefuxiatuentzat dagozkion neurriez ari dela errepikatu du, izan ere hola ez balitz herrian instalatu bezain laster kanporatuak izaten ahalko liriteke eta papergabe gisa kontsideratuak izan. Hargatik Estatuko zerbitzuekin elkarlanean ari izan behar da.

Jaun Suprefetak Auzapez Jaunari, departamendu mailan ez dela oraingo deus ere antolatu baieztatu zion.

Egoera larria denez, Auzapez Jaunak aitzina hartu beharko litzatekeela uste du, eta kezka hori duten beste hautetsi batzuekin ahal bezain fite lanean hasi nahiko luke. Frantziako herri guziek

familia bat hartzea onartuz gero, egora hobea litzateke agian.

Auzapezak saioa hasi aitzin egin nahi izan duen adierazpena zen, eta ondotik Christian Devèze Jaunari 3. puntua aurkezteko hitza ematen dio.

### **3 – 2015 saneamendu programa: enpresen izendatzea.**

Christian Devèze Jaun axuant arduradunak, 2015eko jatorrizko aurrekontuaren bozketan, saneamendurako aurrekontu erantsia den 2015 saneamendu programa bozkatu zela oroitarazi du eta horren baitan prozedura egokiko merkatu bidez eginiko kontsulta bat abian ezarria dela adierazi. Egitekoak bi ataletan banatu ziren:

- 1. Atala: ur zikinen sarea Camp de César bidera hedatzea, zergarik gabeko 203 883,36 €-ko (oinarrizko aterabidea) + balizko egiteko gehituekin, zergarik gabeko 12 360 €-ko aurreikuspenarekin;
- 2. Atala: Termetako zubiko eta La Halte bideko ur zikinen sarearen berregituratzea, zergarik gabeko 104 192,27 €-ko aurreikuspenarekin.

Eskaintza deialdirako argitalpena 2015eko uztailaren 27an igorri zen eta proposamenak eskuratzeko epea 2015eko agorrilaren 31n arratsaldeko 8tarako finkatu. 1. atalarentzat lau gutun eskuratu ziren eta 2. atalarentzat beste lau.

Hydraulique Environnement Aquitaine ikerketa bulegoak eskaintzak aztertu ondoren, ekonomikoki erakargarriena zen eskaintza onartzeko proposatu zion Herri Kontseiluari, hots:

- 1. Atalarentzat: ECRD elkarte (mandataria) – DUHALDE (obra kide) zergarik gabeko 227 447,00 €-ko zenbatekoaren truk.
- 2. Atalarentzat: DUHALDE elkarte (mandataria) – ECRD (obra kide) zergarik gabeko 98 275,28 €-ko zenbatekoaren truk.

Bacardatz jaunak, gutunen irekitzearen inguruan igorri zuen maila dela eta, deialdi publiko batzordearen gaira itzuli nahiko luke eta, barne araudia berrirakurri zuela adierazi ondoren eta nahigabeak ekiditeko, araudi hori errespetatu dadin batzorde orok bilkura agiri bat egin eta kontseilari guzietan igorri behar diela aipatu du. Gutun irekitzearendako deialdi publiko batzordea ez biltzeko uztailean hartu zen erabakia dela eta, bilkura agiri bat egin izan balitz gertakari hori ekidinen litzateke.

Devèze Jaunak, aipatu dena denek uler dezaten, prozedura egokiko merkatuaren baitan, haurtzaindegiko obrari dagokion kontsultaren inguruko deialdi publiko batzordearen bilkuran, prozedurak berak ahalbidetzen zuen heinean, agorrilaren 31an saneamendu lanekin lotura zuen batzordea bildu gabe gutunak irekitzea ahoz proposatu zela zehaztu du. Egia da deialdi publiko batzordeak prozedura egokiko merkatuaren menean diren obrak usu tratatzen dituela. Horregatik, hautetsiei MAPA (prozedura egokiko merkatua) batzorde baten sortzearen inguruko iritzia emateko galdeginen zaie, nehoiz anbiguotasunik izan bada betiko desager dadin.

Bacardatz Jaunak dio, edozein gisaz MAPA batzordea izan edo deialdi publiko batzordea izan, bilkura agiriak egitea batzordeen printzipioetan dela.

Devèze Jaunak adierazi du Bacardatz Jaunak batzordeen bilkura agiriari buruzko beste arazo bat aipatzen ari dela, baina funtsezko arazoa gutunak batzordea bildu gabe irek daitezkeen edo ez jakitea dela. Zerbitzuen zuzendari nagusiak, prozedura azkarrago joan dadin, agorrilaren 31an obralariaren aitzinean gutunak irekitzea proposatu zuen. Orain ohar gehigarri bat egiten da,

batzordearen lanen bilkura agiriak idatziz eskuratzea.

Bacardatz Jaunak zehazten du batzordea ez biltzeko proposamena ez zuela entzun edo notatu. Ordura arte gutunen irekitze guzientzat batzordea konbokatu denez ez du aldi horretarako zergatik ez zen deitua izan ulertu. Hara zergatik mezu elektronikoa igorri duen. Ez zuen jukutiarik egon zenik susmatu zuelako igorri, gutun irekitzean eta eskaintzen azterketaren ondoko bilkuran egotearen printzipioagatik baizik.

Devèze Jaunak, MAPA batzordearen esparruan, obralariak egin azterketa ondoren konbokatzeke aukera izanen dela azpimarratu du.

Bacardatz Jaunak, gutun irekitzean deialdi publiko batzordearen presentzia hautuzkoa dela baina eskaintza azterketa ondoren derrigorrezkoa dela dio.

Devèze Jaunak azterketarako derrigorrez konbokatuko dela ihardesten du.

Bacardatz Jaunak, dosierra ezagutzeko gutun irekitzean, berean egotea interesgarri dela errateko hitza hartu du.

Auzapez Jaunak ez dela obligazio bat aipatu du eta MAPA baten kasuan ez dela batzordea biltzerik. Bera auzapez denetik, deialdi publiko batzordea biltzea baitezpadakoa izan ez zelarik ere, gardentasunaren izenean, merkatu guziak batzordean eztabaidatuak izan daitezzen bermatu duela zehaztu du. Zerbitzuen zuzendari nagusiak proposatu zuen gauza bakarra izan zen, beste herri anitzetan egiten den bezala, proposamenak obralariaren esku utzi ahal izateko gutunak irekitzea eta ondoren, funtsaren inguruko eztabaidarako batzordea deitzea. Behar bada Zerbitzuen zuzendari nagusiaren proposamena ez zen idatzia izan. Eztabaida horiek ekiditeko, eskaintza deialdietako araei lotua izanen ez den MAPA batzorde berezia sortzea proposatuko da eta, obralariak estimazioa egin ondoren, eskaintzen azterketa batzorde horren esku utziko da.

Zerbitzuen zuzendari nagusiak zehazten du: “elkartzen den batzordeari ez zaio beste herriko batzordeek errespetatu behar duten barne araudi bera aplikatzen. Deialdi publiko batzordea bost eguneko epean konbokatu behar da, zuzenbide araua da. MAPA batzorde berezi hori deialdirako epea laburtu ahal izateko sortu da, izan ere juristek bost eguneko epea aski luzea dela estimatzen dute. Hamabost eguneko epea atxikitzeke ahalegina egingen da, jakinez legea ordena publikokoa dela eta bost eguneko epea nagusitzen denez barne araudiak ez duela gaina hartzen. Ondorioz batzordea aitzinetik ezagutuko diren datetarako deitzea errea izanen da eta nahi duen kide oro jiten ahalko da ez baita gehiago quorumaren arazoa agertuko. MAPA batzorde berezi horrekin, ez da gehiago ez quorumik ez eperik errespetatu beharko baina bi bilkurentzat deialdi bana luzatuko da”.

Bacardatz Jaunak, ECRD enpresa dela eta, “hiri bihotza” operazioaren esparruan egin lanei buruz zerbait egin denez galdegin du, mugitzen diren lauzak baitaude eta beste arazorik egiaztatu baita.

Auzapez Jaunak hitza Jean-Noël Magisi emanen diola baina, makurguneak agertu zirenez eta, enpresa, hori konpontzeko bizpahiru aldiz esku hartu zuenez Bacardatz Jaunaren erranarekin bat egiten duela adierazi du. Hiri bihotzaren tartearantz, aldaketa batzuk egitea erabaki zen mota horretako arazoak ekiditeko asmoz.

Magis Jaunak lan horiek garantia epearen barnean sartzen direla zehaztu du eta enpresarekin egoerari buruzko atestatu bat eginga izan dela azpimarratu. Berriz esku hartzeko galdegina izan zitzaien baina, itxura aldaketarik gabe, teknika ezberdinean oinarrituz. Arraxinazko emokadura hori satisfagarria dela eta, teknika berarekin eginga izan den Angeluko eliza ataria ikustera denak

gonbidatzen ditu.

Hiriart Urruty Andereak egiteko molde hori merkeago den galdegin du.

Magis Jaunak baietz baina kostua enpresak bere gain hartuko duela ihardetsi dio. Hiriaren bihotzaren azken tartearantz lauzaren printzipioa baztertuko da, ez baitu satisfamendurik ematen.

Bacardatz Jaunak zonalde batzuk edo lauzazko sektore guzia hunkitua den galdegin du.

Magis Jaunak harrizko lauzak diren guneeetan soilik dela, hots Trinketako karrikako gain aldea eta, trinketaren heinean, han-hemenkako arazoa dela azpimarratu du.

Devèze Jaunak gaitik urruntzen ari girela ohartarazten du eta Camp de César bidean ez zela harrizko lauzarik izanen azpimarratzen. ERD enpresak saneamendu mailan egin dituen lan guzietan satisfamendu osoa eman dutela eta Camp de Césarreko bidean egitekoak direnekin gauza bera izanen dela espero duela dio.

Auzapez Jaunak bozkatzea proposatu du.

Devèze Jaunak proposaturiko enpresen izendatzea eta 2015eko saneamendu programa proposamena aho batez onartu da.

#### **4 – Programaturiko Eskuragarritasunerako Agenda (PEA): proiektuaren onartzea.**

Auzapez Jaunak Herri kontseiluari oroitarazi nahi dio, elbarrituen eskuragarritasunari buruzko 2005eko legeak, publikoari harrera egiten dion eraikin (PHE) ororentzako eskuragarritasuna gauzatu dadin, epe muga gisa 2005eko urtarrilaren 1.a finkatzen duela. Baliabide horiendako malgutzeak badira ere, PHE-entzako eskuragarritasunaren betebeharra berretsi da. Beraz, PHE-entzat eta publikoari irekiriko muntadurarentzat (PIM), programaturiko eskuragarritasunerako agenda (PEA) plantan ezartzea derrigorrezkoa da.

PHE-ren eta PIM-ren eskuragarritasunerako lanen ahokadurarako egutegia da PEA, zeinarentzat herria epeetan betetzera, diruztatuzera eta eskuragarritasunerako arauak errespetatzera engaiatzen baita. Formazko dokumentu hori, 2015eko irailaren 26rako suprefeturan pausatu behar da onartua izan dadin.

2015eko apirilaren 13ko Herriko kontseiluak hartu erabakiaren bidez, elkargoa desmarta horretan laguntzeko, QCS Service SA kabinetearekin merkaturia izenpetzeko ahaldundu zuen Auzapez Jauna.

Peio Etchelecu Jauna gelan sartu da.

Ondorioz beharrak zerrendatu behar dira eta programa bat finkatu. QCS Service SA kabinetea herrietako guneez hurbildu zen eta herrietako eraikin ezberdinen eskuragarritasunerako egin beharreko obren txostena helarazi zuen. Bi ataletan banatzen da: 2016tik 2018ra, zergarik gabeko 474 805 €-ko zenbatekoarentzat, eta 2019tik 2021era zergarik gabeko 467 575 €-ko zenbatekoarentzat, ororen buru zergarik gabeko 942 380 €-ko zenbatekoarentzat alegia. Lanen hierarkiazioa dela eta, Magis eta Saint Jean Jaunei, elbarrituentzako baliagarriena zer den eta herriaren eraikin guzietan igogailuak ezarri ordez eskuragarritasuna lortzeko beste molderik baden zerbitzu teknikoekin ikusteko eskatu die Auzapez Jaunak.

Hastapen batean erran denaren aurka, lanen burutzeko epea ez da bederatzi urtekoa seiko baizik. Auzapez Jaunak zehaztu du, herri gehienetan obren %70 baizik ez dela egin beharko eta ez % 100.

Auzapez jaunak, Jaun Prefetaren esku utziko den programaturiko eskuragarritasunerako agenda, Herriko kontseiluari ontzat eman dezan proposatu dio. Bi alditan iragaitekoa da: lehena hiru urteko iraupenekoa, lanak jatorrizko aurrekontuan urte guzietan sartuko direlarik, eta hierarkizaziorik gabeko bigarren aldia. Helburua programa ia osoki betetzea da, gehitzen ahalko diren puntuekin eta gibelatuko diren beste batzuekin.

Michelena Jaunak eraikin publikoen eskuragarritasunaz mintzo direla azpimarratu du. Jadanik erran zuen elbarrituen lehenbiziko arazoa, bereziki errotadun aulkian direnena, bidera iristeko, espaloietan kurrutzeko, oinezkoen iraganbideak zeharkatzeko eta espaloi bazterreko ibietatik jautsi ahal izateko mementoan zela. Aitzineko eskuragarritasun batzordeak, aurten arrahartzen den lanketa hori burutu zuen jadanik. Behar horien zerrendatzea hiri barnarentzat bederen eginga izan zen. Zifratzerik egin denik galdegiten du eta arazo horiek konpontzen hasi beharko litzatekeela deritzo, errotadun aulkietan direnez gain, ikusmen eta entzumen urriko jendea herri barnean eta dendetan kurrutu ahal izateko. Behin baino gehiagotan aipatu badu ere, ez zaio sekula ere programaketari buruzko arraposturik eman, beti erran baitzioten lan horiek elkargoak kudeatuko zituela. Egia da, publikoari harrera egiten dioten eraikinei dagokionez, legeak obren egitera derrigortzen duela, baina une berean edo lehentasunez bideetatik hasi beharko litzateke.

Auzapez Jaunak hala dela erantzun zion, herriek lege betebeharrak dituztela; ezin dela lehentasunik egon baina bideak ere legean sartzen direla. Agintaldia 2020 urtera arte doanez, programa horren betetzea ondotik jinen litzatekeen udal taldeari uztea pentsaezina zaio. Lege betebeharra denez engaiatu behar dela, eta burutuko ez balitu herriko etxeak zigorrak jasotzen ahalko litzatekeela gehitu du. Lehentasuna espaloien eskuragarritasuna baldin bada ere, PHE-etatik hasi behar da nahiz eta gehien baliatzen diren eraikinak eskuragarri izan (herriko etxea, zinema, L'Aiglon, Zabalki, zerbitzu anitzeko zentroa). Txostena irailaren 26rako pausatu behar da eta herria horretara engaiatzea behartua da. Bestalde mugikortasun urriko jendea, espaloietako ibien goratasunak tratatzen du gehien, horretarik hasi beharko litzateke. Auzapez jaunak oroitarazi du, "hiri bihotza" operazioaren helburu nagusia ez zela herria edertzea, Trinketa bazterrean egin zen bezala, espaloiak eta espaloi faltsuak kentzea baizik. Bere taldearen helburua, espaloiak eta oztopoak kenduz, bideen lehentasuna oinezkoentzat ezarri eta batez ere komertzioak ahal bezain eskuragarri utziz, mugikortasun urriko jendearen mugikortasuna erretzea zen eta ez errotadun aulkian direnena soilik. Zerbitzuei eskatu zaie, espaloi bat eginen dutelarik edo berritze bat egiteko asmoa dutelarik, abantailak eta trabak kontuan hartzeko. Bost edo sei urteren buruan, arazo hori hobetzeko esperantza duela erran du Auzapez Jaunak.

Herriak eskuragarritasunerako programa, "hiri bihotza" operazioaren bidez jadanik abiatua zuen; ez da nahikoa eta zentzu horretan aitzina jo behar da. Operazio bat pentsatzen delarik, programa kontuan hartu beharko da eta pentsatzen ez delarik, batzordeak aipatzen dizkigun "puntu beltzak" kendu beharko dira.

Saint Jean Jaunak, eskuragarritasun batzordeko lehendakariordeak, adierazi du bideetako arduradun Magis Jaunak eskuragarritasunerako lanak aurkeztuko dituela, bereziki berrikustekoak diren ibiena.

Magis jaunak azpimarratu nahi izan du, egin diren lan berri guztiak elbarrituen eskuragarritasuna kontuan hartuz egin direla: hiri bihotza, frontoina, Grancher etorbidea eta Sorhainde plaza. Lanak ez badira jadanik eraikiak ziren ibien inguruan zentratu, lan berri anitz egitekoak zirelako izan da. Ibilbidearen nozioa hobetzeko asmoz, ondoko urtean han-hemenkako

ekimenak burutzen ahalko direla espero du.

Auzapez Jaunak baieztatu du Saint Jean Dk.-ren arranguretan dela eta honek, sor zitezkeen arazoez jabetzeko asmoz, hautetsi batzuek errotadun aulki batean jartzeko egin proposamena onartu duela. Ez direla ikusmen eta entzumen urrikoak ahortzi behar gehitu du.

Michelena Jaunak hitza hartu du, zailtasuna bereziki hiri barnetik aparte bizi zirenentzat dela adierazteko.

Auzapez jaunak zehaztu du, zerbitzuek Souberbielle auzoan elbarritu baten galdearen ondotik esku artu dutela baita Delbarre auzoan ere, eta han-hemenkako konponketak egin direla. Urgentziazko kasuak eta elbarrituak zailtasun gehien zituzten guneak idaztea on litzateke.

Hiriart-Urruty Andreak azpimarratu du, PHE-en eta PIM-en zerrendaren barnean 30 000 €-ko zifra zuen errugbiaren egoitza agertzen dela. Egin berri den lokala den galdegin du.

Saint Jean Dk.ak adierazi du txarteldegitik abiatzen den ibilbide bat pentsatua dela, eskuragarritasuna aparkalekutik aitzina egin behar baita.

Bacardatz Jaunak, lan horiek 2017-rako pentsatuak direla azpimarratu du, Michel Labeguerie zelaian eta tribunetan.

Saint Jean Jaunak elbarrituentzako toki babestuak direla adierazi du. Irispidea errugbiko egoitzaatik tribunetara ere egingen da.

Bacardatz Jaunak nolabaiteko anbiguitasuna badela pentsatzen du; hobe litzatekeela irispideetatik hasia eta tribunak ondotik eskuragarri ezartzea.

Auzapez Jaunak ihardetsi du ez dela hala eta QCS Services Kabineteak egin proposamenak kontuan hartu dituela.

Auzapez jaunak bozkarazi du.

PEA proiektua aho batez onartu da, espaloien eskuragarritasuna, hiri barnekoak eta besteak, gutietsi gabe.

## **5 – GR8 ibilbidearen aldatzeko proiektua.**

Auzapez Jaunak Herriko kontseiluari azaldu dio, departamenduko oinezko ibilaldien ibilbide luzeetako obralaritza osoa Pirinio Atlantikoetako departamendu Kontseiluak bere gain hartzen duela.

Kanboko eremuan den egungo G.R.8 ibilbidearen aldatzeko asmoa agertu du. Aldaketa proiektu horrek, ibiltarientzat ibilbidea segurragoa eta goxoagoa izatea ahalbidetuko du, distantzia luzean hartu behar diren auto zirkulazioa duten bideak alde batera utziz.

Pirinio Atlantikoetako Departamenduak, Frantziako oinezko ibiltarien federakuntzari (F.F.R.P.) pentsatua den eremu berria G.R. gisako onarpen eman diezaion galdegiteko asmoa du.

Ibilbide berri horrek Kanboko herriaren eremua zeharkatuko du, herriaren ondasuna diren honako lursail eta bideetatik:

- 97. lursaila AX sekzioa Kanbo herrian Pirinio Atlantikoetan

- 149. lursaila AX sekzioa, Kanbo herrian Pirinio Atlantikoetan

Pirinio Atlantikoetako Departamenduarekin iragateko hitzarmena izenpetzea derrigorrezkoa diren lursailak:

- Fleuristes deritzon herriko bidea.

Auzapez Jaunak Herriko Kontseiluari ibilbide berri horri baiezkua ematea proposatu dio eta Pirinio Atlantikoetako Departamenduarekin herriko eremu horietarako iragateko hitzarmena izenpetzeko baimena eman diezaion eskatu.

Aho batez onartua.

## **6 – MAPA batzordearen sortzea.**

Devèze Jaunak, Herriko kontseiluari MAPA batzorde berezia sortzea proposatu dio baita deialdi publiko batzordekoak diren kideak beste batzorde horretako kide izan daitezten ere, hau da:

- Auzapez Jauna edo bere ordezkaria, lehendakari.
- Kide titularrak: Jouglex Anderea, Bardin Jauna, Aizpuru Anderea, Jenvrin Jauna, Bacardatz Jauna.
- Ordezko kideak: Devèze Jauna, Noblia Anderea, Irastorza Jauna, Saint Jean Jauna, Aiçaguerre Anderea.

Bacardatz Jaunak, MAPA batzorde bereziaren eta deialdi publiko batzordearen arteko ezberdintasunak argitze aldera, gutun irekitzerik izanen den, hautuzkoa den eta kideak bertan egoten ahalko diren galdegin du.

Devèze Jaunak baietz ihardetsi dio.

Bacardatz Jaunak, argi geldi dadin, ea batzordeko kideak gutun irekitzera gonbidatuak diren edo ez galdegin du.

Auzapez Jaunak ihardetsi dio, ez dela MAPA batzordea biltzeko obligaziorik, baina eginen dela eta kideak gonbidatuko direla.

Bacardatz Jaunak azpimarratu du 2014an iritsi zirelarik, Auzapez Jaunak deialdi publiko batzordea konbokatzeko obligaziorik ez zela baina dossier guziak deialdi publiko batzordetik iragaten zirela erran zuela.

Auzapez Jaunak erantzun dio, oraindik aitzina dossier guziak MAPA batzordetik iraganen direla.

Bacardatz Jaunak erran du orain arte kideak gutun irekitze guzietara gonbidatuak zirela eta beraz ez dela gehiago hala izanen.

Auzapez Jaunak erantzun dio ezberdintasuna deialdi publiko batzordearen formalismotik heldu dela, MAPA batzordeak ez baitu errespetatzerik, ez delako derrigorrezkoa. Deialdi publiko bat delarik, merkatu publikoen kodearen prozedura biziki zehatzak jarraikiz, deialdi publiko batzordea derrigorrez biltzen da eta bestelako merkatuentzat MAPA batzordea izanen da sistematikoki konbokatuko dena.

Bacardatz Jaunak, prozedura egokiko merkatuen kasuan, batzordeko kideek eskaintza deialdiaren dosierra eskura dezaten edo kontsulta deialdiaren berri ukan dezaten eskatu du.

Zerbitzuen zuzendari nagusiak adierazi du, elkargo guzietan orokorki, batzordeetako kideek ez dutela sekulan kontsulta baten deialdiari buruzko abisua ukaiten. Egin badaiteke ere, ez da neholako obligaziorik. Batzordeko kide guziei konkurrentziarako deialdiaren kopia igortzea posible da.

Auzapez Jaunak bozkarazi du. Beste hautagairik baden, Herriko kontseilua deialdi publikoko talde bera izendatzeko ados den eta isilpeko bozketa egin behar den galdegin du.

Herriko kontseiluak MAPA batzorde berezia sortzea aho batez erabaki du eta deialdi publikoko talde bera izatea onartu.

## **7 – CCAS/GLUZ-ko NAPen eta ALSH/OGAHen herrirako esku aldatzea.**

Saint Jean Jaun axuant arduradunak oroitarazi du, 2015eko martxoaren 9ko Herriko kontseiluak gizarte laguntzarako udal zerbitzuaren (G.L.U.Z.) kontu-ikuskatzea Pintat-Buisson kabinetearen esku uztea erabaki zuela. Kabineteak, kontu-ikuskatze horren emaitzak iragan irailaren 4an bildu zen G.L.U.Z.-ko administrazio kontseiluko kideen esku utzi zituen. Bestalde, G.L.U.Z.-aren lan gainkarga arintzeko asmoz, honen berrantolaketari buruzko neurriak hartzearen inguruko bilkura antolatu zen herriko etxean. Neurri horiek, gazteentzako animazioaren kudeaketa herriaren esku uztea barne hartzen dute besteak beste. Horrek, zuzendariari, lan karga arindu eta etxez etxeko laguntza zerbitzua laguntzeko, fakturazioaz eta langileen ordainsariez arduratzea ahalbidetuko lioke.

Herriko kontseiluari proposatzen dio:

- 2016ko urtarrilaren 1.etik goiti G.L.U.Z.-ko Ostatzte Gabeko Aisialdi Harreraren (GGAH/ALSH) esku aldatzea baimentzea;
- dagozkion lanpostuak sortzea, hots: 2. mailako animaziorako laguntzaile postua denbora osoz eta 2. mailako teknika laguntzaile postua denbora ez osoz (20 oren astean), 2016ko urtarrilaren 1.etik goiti. Lanpostu horiek jadanik existitzen dira baina GLUZ-ak hartzen ditu bere gain.
- Auzapez Jauna, zentzu horretan doan desmartxa oro burutzeko eta lotua legokeen dokumentu oro izenpetzeko ahalduntzea.

Michelena Jaunak denbora osoko zein lanpostu esku aldatuko den galdegin du.

St Jean Jaunak Xavier Lallartek betetzen duen lanpostua dela erantzun dio eta lanpostu hori jadanik indarrean dela eta eskua aldatze soila dela.

Hiriart-Urruty Andreak esku aldatzea dela eta ez lanpostu sortzea azpimarratu du.

Saint Jean Jaunak herriarentzat lanpostu sortzeak direla adierazi du.

Hiriart-Urruty Andreak, esku aldatzearen ondorioz aisialdi zentroko langileen soldata agiriak nork eginen dituen galdegin du.

St Jean Jaunak, aipatu bi lanpostuez aparte, aisialdi zentroko langileen kudeaketa UFCV-ren esku dela ihardetsi dio.

Hiriart-Urruty Andreak galdegin du nor arduratuko den familia fakturazioaz.

St Jean Jaunak, GLUZ-aren esku zen betebeharrak hori herriak bere gain hartuko duela zehaztu du.

Hiriart-Urruty Andereak lan hori nork burutuko duen galdegin du.

St Jean Jaunak herriko etxeko kontabilitate zerbitzuak eginen duela erran du.

Hiriart-Urruty Andereak, ardura hori duen langilearentzako lan gehitua suposatuko duela azpimarratu du.

St Jean Jaunak baiezkoarekin ihardetsi du, baina horrek GLUZ-ko zuzendariaren lan karga arinduko duela eta etxeko zerbitzua laguntzeko ahala ukanen duela.

Hiriart-Urruty Andereak adierazi du, egiteko hori herriko etxeko langileek burutuko dutela.

St Jean Jaunak dio, esku aldatzea gauzatzeko akordio batera iritsi zirelarik, herriko etxeko zerbitzuendako lan karga gehitua suposatuko lukeela jakitun zirela.

Michelena Jaunak azpimarratu du fakturazioaren parte handi bat aisialdi zentroko zuzendariak egiten duela.

Zerbitzuen zuzendari nagusiak, herriko etxeko langileek lan karga gehitu hori onartu dutela zehaztu du.

Michelena Jaunak adierazi du NAP-ak ez zirela neholara ere GLUZ-aren esku egon behar eta herriko etxearen esku gelditu behar zirela.

Auzapez Jaunak erantzun dio, Kanbon NAP-ak, GLUZ-are menpe den aisialdi zentroak kudeatzen dituela. Berez, estatuak diruz laguntzen dituen NAP-ak herriaren eskumena dira eta aisialdi harrera zentroak gehienetan herriari lotuak. Ondorioz anomalia horri amaiera emanen zaio eta GLUZ-aren lan karga arinduko da.

Auzapez Jaunak bozkarazi du.

GLUZ-ko NAP-en eta OGAH-en Kanboko herriaren esku uztea eta bi lanposturen sortzea aho batez onartu da.

## **8 - Arditeya – Vieil Assantza elkartearentzako diru laguntza.**

Auzapez Jaunak jakinarazi du Arditeya – Vieil Assantza, EHPAD/MAJHE-k (Meneko Adineko Jendearen Harrera Etxea), Gerla Handiaren oroitzarrea zela eta, ezohiko diru laguntza galdea egin duela. Animaziorako eta musika adierazpiderako lan handia burutu da, batez ere Arditeyako gizarte bizitzarako kontseiluaren partetik. Lan horrek kostu bat sortzen du eta horregatik herriari laguntza eskatu diote.

Auzapez Jaunak 200€ko laguntza ematea proposatu du Belaunaldien arteko proiektu horrek, Gerla Handiko garaiko Frantziako egunerokotasuna hunkitzen du.

Michelena Jaunak bere taldeak ez duela aitzin konturik ukan eta ondorioz ezin duela deus ere erran adierazi du. Zenbatekoa proiektu baten arabera finkatua edo elkarteak eskatu zuenez galdegin du, hots zein izan diren suma finkatzeko irizpideak.

Auzapez Jaunak Herriko kontseilutik pasatzen den dokumentu oro zerbitzuen zuzendariarenean kontsulta daitezkeela oroitarazi du. 39 000 €-ko aurrekontu orokor bat finkatu zen. Auzapez Jaunak aitzin kontuaren xehetasunak eman ditu.

Auzapez Jaunak bozkarazi du.

Auzapez Jaunak egin 200 €-ko diru laguntza Arditeya MAJHE-ri emateko proposamena aho batez onartu da. Saint Jean Jaunak ez du bozketan parte hartu.

## **9 – Langileak**

### **a) Lan denboraren emendatzea**

Auzapez Jaunak zerbitzuen zuzendari nagusiari hitza eman dio eta honek, eskola erritmoen aldaketa eta langileen betebeharren berrantolaketa dela eta herriko egoitzen mantenua behar bezala egina izan dadin, 2. mailako denbora ez osoko bi teknika laguntzailearen lan iraupena moldatzeko beharra aipatu du.

Herriko kontseiluari proposatzen zaio:

- 2015eko urriaren 1.etik aitzina, denbora ez osoko 2. mailako teknika laguntzaile lanpostu iraunkor baten kentzea (6,5/35) eta data beretik aitzina, denbora ez osoko 2. mailako teknika laguntzaile lanpostu iraunkor baten sortzea (23,20/35)
- 2015eko urriaren 1.etik aitzina, denbora ez osoko 2. mailako teknika laguntzaile lanpostu iraunkor baten kentzea (17/35) eta data beretik aitzina, denbora ez osoko 2. mailako teknika laguntzaile lanpostu iraunkor baten sortzea (23,68/35).

Bacardatz Jaunak, asteko 7 oreneko lanpostua duen langileak, lan kontratua aldatu gabe 16 oren gehigarri egin ote ditzakeen galdegin du.

Zerbitzuen zuzendari nagusiak erantzun du hori egin daitezkeela baina ez duela denbora muga bat iragan behar.

Bacardatz Jaunak eperik baden galdegin du.

Zerbitzuen zuzendari nagusiak eperik ez dela erantzun dio, ezen hiru urteren buruan oren gehigarri horiek desagertzen badira, hastapeneko kontratua hartuko bailitzateke kontuan. Betebehar berriak iraunkorrek dira. Eskola erritmo berriak aldaketa ezberdinak sortu ditu. Egiten diren oren gehigarriak erretretarako kontatzen diren oren osagarri bezala ordainduak dira.

Auzapez Jaunak bozkarazi du.

Aipatu bi lanpostuen oren emendatzea aho batez onartu da.

### **b) Lanpostu sortzea**

Auzapez Jaunak adierazi du, 2016ko martxoaren 1.etik goiti sortzekoa den giza baliabideen zerbitzurako lanpostu sortzeari buruz ari dela.

Erabaki hori, zerbitzuen zuzendari nagusiarekin eta axuantekin kontsultatu ondoren hartu zen, zuzendaritzako idazkaritza aspalditik burutzen duen eta 2016an erretreta hartuko duen Maite Bidabé ordezkatu beharko baita.

Auzapez Jaunak bi aukera dituela adierazi du: ordezkari bat xerkatzea, edo herriko etxeko langileetatik bat hartzea. Auzapez jaunak, zerbitzuen zuzendari nagusiarekin dosierra aztertu ondoren eta bere eskumenekoa bada ere axuanteekin eta bere taldekoekin aipatu ondoren, ondoko proposamena egin du: egungo giza baliabideen arduraduna den Marie-Pierre Brave zuzendaritzako idazkari izendatzea Maite Bidabéren tokia hartzeko.

Marie-Pierre Bravek proposamena onartu duenez, giza baliabideen posturako ordezkari bat atzeman beharko da.

Ondorioz, Herriko kontseiluari giza baliabideen zerbitzurako 2016ko martxoaren 1.etik aitzina lanpostu bat sortzea proposatu zaio. Auzapez Jaunak, administrazio laguntzaile edo erredaktore postua izanen dela zehaztu du.

Zerbitzuen zuzendari nagusiak gehitu du kandidatura deialdia jadanik luzatu dela. Interesatuak urria erdira arte dute haien kandidatura pausatzeko. Kandidaturen azterketa, Kudeaketa Zentroko pertsona batekin egitea aurreikusi da eta, ondoren, atxikiak liratekeen hautagaiekin elkarrizketa eginen litzateke, azarorako erabakia hartua izateko gisan. Jadanik elkargo batean lan egiten duen pertsona bat baldin bada hiru hilabeteko aitzin-abisua errespetatu beharko da.

Auzapez Jaunak bozkarazi du. Aho batez onartua.

### ***c) LLKren berritzea***

Auzapez Jaunak oroitarazi du 2014ko azaroaren 3ko Herriko kontseiluak, 2014ko azaroaren 11tik aitzina, urte baterako Lanean Laguntzeko Kontratu peko (kontratu lagundua) lanpostu bat sortzeko erabakia hartu zuela. Kontratu hori beste urte batez berritzeko aukera bada. Lagunduriko kontratu hori, gehienezko 20 orenera finkatua da. Kanboko pertsona batek eskuratu ahal izan zuen eta Assantza kultura gunean (Poupel, Bota, Durrieux artxibategien eta herriko etxean ziren beste dokumentu eta erakusketen sailkatzea) eta Arnagan esleitu zen (gida).

Auzapez Jaunak adierazi du, heldu den urteko erakusketen kariatara eskola animazio eta bitartekari lana handitzen ikusi nahiko lukeela.

Auzapez Jaunak gehitu du, Biarritzeko elizpean egin zen dantzari buruzko Soka erakusketa ederraren estreinaldian, Departamendu Kontseiluaren exekutiboa ordezkatu zuela. Euskal Kultur Erakundeko zuzendariari eta lehendakariari erakusketa hori Kanbon hartzea proposatu zien, baina instituzio horretako lehendakariaren ustez Assantza gunea tipiegia da holako erakusketa batentzat. Auzapez Jaunak adierazi du, lau hizkuntzetan den erakusketa hori Donostiara joan aitzin, 2016ko eskola garaian Kanbon egon dadin absolutuki nahi duela, baina horretarako toki egokia atzeman beharko dela.

Auzapez Jaunak 20 oreneko kontratuaren ordezkari 22 oren eta erdiko kontratu mugatua sortzea proposatzen du (20 oren soilik lirateke lagunduak). Horiei, Arnagan betetzeko, asteko 7 oren eta erdi urtekatu gehituz gero, urte osorako asteko 30 oreneko lanpostua litzateke.

Auzapez Jaunak adierazi du interesatuari 2015eko irailaren 21ean gutun bidez proposamena luzatu ziola, aipatu gutuna irakurri du, eta baiezkoa eman duela.

Auzapez jaunak, 30 oreneko kontratua baino hobe 35ekoa litzatekeela baina Estatuaren diru laguntzen apaltzeak direla, soldata masa atxiki behar dela eta herriko etxeek funtzionamendu xahutzeak zaindu behar dituztela zehaztu du. Beharrak agertzen dira eta zerbitzu ezberdinetan postu

osoak edo postu erdiak sortzen ahalko lirateke, baina kasu egin behar. Elkargo batzuk, bereziki Departamendu kontseilua, langileen kargak arintzea hausnartzen ari dira. Eskari guzietan erantzutea ezinezkoa da. Aurrekontu murrizketa garai zorrotzean bizi gira (856 000€ gutxiago lau urtetan). Estatuaren funtzionamendurako xahutzeen apaltze nagusien xokoa, funtzionarioen eta lurralde elkargoentzako laguntzen gutxitzea da.

Bacardatz Jaunak azpimarratu du LLK hori behin baizik ezin dela berritu, baina geroko zer pentsatu den galdegiten du.

Auzapez Jaunak ihardetsi dio urgentziazko egoerari buru egiteko mementoa dela, Assantza kultura guneak animazio beharra duela. Artxibatzea eta sailkatzea funtsezko lanetan da. hori egin izanen delarik, Assantzako lana gutxituko da. Herriak, eskola bitartekaritza eta animaziorako proposamenak eginen dituen pertsona bat egotea behar du. Ez zen neholako promesik egin, ez bazen urte beteko kontratua berritzearena eta 30 orenetara pasa den lan denbora hobetzearena.

Bacardatz Jaunak adierazi du orokorrean LLK-k, jendeari enpresako munduan edo tokiko elkargoetan sartu ondoren ebaluatzeko, balioztatze eta kontratuaren amaieran postu finkoa proposatzeko edo ez sortu zirela. Baliabide hori ez da, lagunduriko kontratu pean zelako, jende hori erabili eta gero mugarik gabeko kontratua ez proposatzeko. Bere iritziz ez dagokio herriari baliabide horretaz profitatzea.

Auzapez Jaunak zehaztu du, herriak gazte enpleguen eremuan lanpostuak sortu dituela, ondoren Kanboko herriari eperik gabeko lana ematea ahalbidetu diona.

Devèze Jaunak orduan egoera ezberdina zela errateko hitza hartu du. Interes orokorra nagusitu behar da.

Auzapez jaunak bozkarazi du.

Aho batez onartu da.

## **10 – Uraren eta saneamenduaren zerbitzu publikoa: 2014 txostena.**

Devèze axuant arduradun Jaunak adierazi du, Herriko kontseiluak, lurralde kolektibitateetako kode nagusiko L.22245 artikulua araberako uraren eta saneamenduaren zerbitzu publikoen prezioari eta kalitateari buruzko 2014 txostenaren berri eman behar duela. Zinegotzi guzietan txosten hori jaso dukete.

Edateko urari dagokion 2014 txostena, AEP URA Sindikatu Mistoak egin zuen. Devèze jaunak, Ursuatiatik hartzen den edateko uraren kalitateari buruz, mineralizazio handiko ura dela adierazi du eta horregatik biziki garbia den Laxiakoarekin nahasia dela. Paskalekun desmineralizazio estazio bat sortzea jadanik aurreikusi omen da. Fakturaturiko bolumena %5-ez baino gehiago apaldu da. Kanboko herriarentzat fakturaturiko bolumena, 2013 eta 2014 urteen artean, 511 029 m<sup>3</sup>-tik 545 642 m<sup>3</sup>-ra pasa zen. 2014 urteko edateko uraren prezioa, urteko kontsumoa 120 m<sup>3</sup>-koa izanik, m<sup>3</sup>-ko 1,72 €-koa zen xerga oro barne, 2013an m<sup>3</sup>-ko 1,69 €-koa zelarik zerga oro barne. Prezio emendatze hori URA Sindikatuak bozkatu zuen. Aipagarrienak Ahetze eta Arbonako herriak Hego Lapurdiko Hirigunera pasatu izana eta Etienne Durruty presio-igogailuan eginiko lanak dira bereziki. Perspektibetan inbertsio handiena, Larresoroko Errepera izeneko tokian Sindikatuaren egoitza sozial berria eraikitzea da.

Saneamenduari dagokionez, txostena ordezkaria den Lyonnaise des Eaux konpainiak burutu zuen. Fakturaturiko bolumena, 2013tik 2014ra, 482 967 m<sup>3</sup>-tik 422 160 m<sup>3</sup>-ra pasa zen, hots %12,6-

ko apaltzea. Bezero kopurua ez da ia aldatzen: 2014an 3 240-koa eta 2013an 3 228-koa. Edateko urarentzat kopurua 3 467-koa zen 2014an eta 3 450-koa 2013an. 2014an eskuraturiko zergaren emaitza 344 196€-koa zen eta 2013an 430 397€-koa. 20 m<sup>3</sup>-ko kontsumoarentzat, ur metro kubikoa eta saneamendu kolektiboaren 2014ko prezioa, zerga oro barne 3,75 €-koa zen. Urarena 1,72 €-koa eta saneamendu kolektiboarena 2,03 €-koa. Ur zikinen (estolderia berezia) luzera 43 047 ml-koa zen. 2014an buruturiko ustiapen lanak araztegikoak, altxatze postukoak, ekaitz isurbideetakoak eta sareetakoak izan ziren. Egoera bereziak, Termetako zubiko lanak egitera behartu zuten 2014ko uztaileko uholdeekin lotu behar dira. 2014an eginiko inbertsioari dagokionez, estolderia bereziaren sarearen plantan emateko izan zen bereziki. 2015eko perspektibetan, burutzea gomendatu dizkiguten lanetan, araztegikoak, uholdeen ondorioz Behereko Kanboko Lurua altxatze postua eta Arnagako altxatze postua dira.

Devèze Jaunak azpimarratu du, ondorioz trataturiko uren bolumena eta kontsumo bolumena apaldu dela. Hiruhileko nola proportzio zergak azkarki emendatzea ezinezkoa den neurrian, funtzionamendu saileko baliabideen mailaren egonkortzea egiaztatu da.

Bacardatz Jaunak galdegin du, “urari dagokionez, nola azaldu genezake Kanbon biztanleko 131 metro kubikoko kontsumoa egiten dela Uztaritzekoa 97koa delarik?”. Bi herrien biztanle kopurua ia bera da.

Devèze Jaunak kontsumitzaileen arabera dela ihardetsi dio. Kanbok biztanle kopuru handiagoa du, baina ezberdintasuna batez ere herriaren aktibitate ekonomikotik heldu dela adierazi du.

Auzapez Jaunak zehaztu du, herriak Christian Devèze eliza pean 12 500 biztanlerentzako baliokidea duen araztegia egin zuela, Kanboko 5000 biztanlerentzako delarik. Hala ere Kanboko establezimendu ezberdinetatik egun guzietan pasatzen den jendea kontuan hartua izan da.

Bacardatz Jaunak, Arnagako altxamendu posturentzat zera errana dela adierazi du: “argindar hornidura Vacancieletik egiten da; bi hornidurak bereiztea desiragarri litzateke”. Azpi-kontagailurik baden eta Arnagako altxatze postuaren kontsumoa Vacancielek ordaintzen duen galdegin du.

Devèze Jaunak erran du gogoan duela Arnagako altxatze postua aspalditik akastuna dela.

Bacardatz Jaunak zehaztu du, “horrek erran nahi du Vacancieko kontagailutik Arnagako hornidura egiten dela. Ondorioz kontsumoa Vacancielek ordaintzen du”. Azpi-kontagailuak debekatuak direla gehitu du.

Auzapez Jaunak, iaz Vacancielek, uztailearen 4tik Termen aktibitatearen apaltzea zela eta, herriari zerga apaltzeko eskatu ziola eta ukatu zitzaizela gehitzeko hitza hartu du.

Devèze Jaunak gehitu du, kontratua arraberritzeko unean Vacancieko ordezkariarekin ukan zuen solasaldian, honek ez ziola altxamendu postu horretako argindarraren auzia aipatu.

## **11 – Auzapezaren erabakien komunikatzea.**

Lurralde kolektibitateetako kode nagusiaren L.2122-22 eta L.2122-23 artikuluen arabera eta 2014ko apirilaren 7ko Herriko kontseiluaren erabakiaren arabera, jakinarazten da

1º) hiriko lehentasunez erosteko eskubideari dagozkion ezezko erabakiak, 2015eko uztailearen 10etik irailaren 10era:

– Lurrak:3

- Industria eraikina duen lurra: 1
- Etxeak: 6
- Apartamenduak: 3
- Aparkalekuak: 1

2º) hilerriko kontzesioen emate eta arrahartzeei dagozkien erabakiak, 2015eko uztailaren 10etik irailaren 10era:

- 15 urterako kontzesioen erosketak: 0
- 30 urterako kontzesioen erosketak (+hilobiak): 1
- 30 urterako kontzesioen erosketak (+kolunbarioak): 0
- 15 urterako kontzesioen berritzeak: 1
- 30 urterako kontzesioen berritzeak (+ hilobiak): 0
- Lurren dohainezko arrahartzeak: 0

Hiriart-Urruty Andereak hiru lurrak eta industria eraikina duen lurra zein diren galdegin du.

Auzapez Jaunak ihardetsi dio Larregaina auzoko Espainiako etorbidean (Fagoaga jabegoaren ondoan) eta Espainiako etorbidean (beilatoki azpian) diren lurrak direla. Industria eraikina duen lurra, txokolate fabrika ohiari dagokio.

Bardin Jaunak zehaztu du, ez dela herriari lehentasunez erosi nahi zuen edo ez galdegin diotelako lurra saldua izan dela. Edozein suntsitze aitzin, promotoreak behar diren baimenak galdegin behar dituela eta gaur arte ez duela holakorik egin gehitu zuen.

## 12 – Orotarik.

Auzapez Jaunak ondoko informazioak eman ditu:

- Kultura Ministroak Arnagako barrukiak “Monumentu historiko” izendatzea erabaki du. Elizaren sailkatzearekin bezala, Ministroaren erabakia ez da oraindik iritsi.
- Hiru hondakindegia instalatu baditugu ere, Herriko etxeak beti mantendu nahi izan du hilabeteen behineko hondakin berdeen bilketa ezingo da gehiago bermatu. Izan ere, Errobi Herri elkargoak ordura arte prestatzen zuen kamionak bete beharreko arauak ez dituenek jada betetzen, ezingo duela gehiago prestatu jakinarazi du. Herri elkargoak kamionean normetan ezartzeko gasturik ez egitea erabaki du eta arau berriak betetzen ez dituenek, ez dio herriari saltzen ahal. Ondorioz herria kamionik gabe da. Bilketa hori ezingo litzateke herriko langileen osasuna arriskuan ezarri gabe burutu ezta hauen lan orduen epeetan ere, zeren egokia ez litzatekeen ibilgailu batekin eginez gero bilketa denbora luzeegia litzateke. Bestalde Errobi Herri elkargoko ingurumen batzordeak, INDDIGO kabineteari tarifa akuilatzaileari buruzko hausnarketa egin dezan galdegin dio, erran nahi baita etxeko zikinen altxatze zerbitzua gehiago kontuan hartzen dela, gaur egun alokairuzko balioaren arabera kalkulatu baita. Kabinete horrek azpimarra arazi dituen zerbitzuaren ahultasunen artean Kanboko herriak burutzen zuen hondakin berdeen bilketa atzematen ahal da. Identifikatu diren hobetzekoen zerrendan ikus genezake: “hondakin berdeen bilketaren gelditzea Kanbon”. Arrazoin tekniko eta juridikoak direla medio, herriak ez du zerbitzu hori burutzeko gaitasunik. Auzapez Jaunak, zerbitzuen zuzendari nagusiari eta Frédéric Camouri beste aterabide bat xerkitzeko galdegin zela zehaztu du. Landetako hegoaldean trinkoketagailua duten kamionak alokatzen dituen enpresa bat bada, baina ezin du data finkoetarako alokairu sistema batean sartu. Urriko lehen ostegunerako, zerbitzu hori burutzeko kamion bat ukanen dugula bermatzea posible izan da baina enpresak ezin du aitzinetik jakin ondoko hilabeteetan kamion bat libro noiz izanen den. Duda horien aitzinean Auzapez Jaunak erran du herritarrei jakinarazi behar zaiela aterabide bat atzeman ezean azarotik aitzina hondakin berdeen bilketarik ez dela egiten

ahalko. Auzapez Jaunak oroitarazi du bere taldeak 1995ean bi proiektu zituela: hondakin berdeen bilketaren mantentzea eta jadanik baztertua izan den hondakin trabagarrien bilketa.

- Pirinio Atlantikoetan “Kanboko Baimena” deritzon urre eta osagai konexoen bilaketarako baimen eskusiboa. 2015eko agorrilaren 12an, herriko etxeak Prefekturatik heldu zen dossier hori jaso zuen, hilabete bateko epean iritzia eman zezan galdeginez. Jaun Prefetaren gutunak zioen: “txosten hau, dagoen egoeran, ezin zaio publikoari zabaldu, ez kontsultarako utzi, Herriko Kontseiluaren azterketarako soilik igortzen da”. Herriko kontseilua bildu behar ote zen Prefekturan galdetu zuten herri batzuek eta Estatuak erantzun zuen, Auzapezaren iritzia bederen behar zela. Auzapez Jaunak zehaztu du, Herri elkargoko bulegoaren bilkura batean beste auzapezak galdekatu zituela eta bik baizik ez zutela erantzun: Ezpeletakoak aldeko iritzia zuen eta Haltsukoak aurkakoa. Itsasuko Herriko kontseiluak proiektuaren aurka bozkatu du. Herriko etxeetara iritsi diren dokumentuak mehatze enpresarenak direnez, Senpereko auzapezarekin eta beste auzapez zenbaitekin batera, ez ihardestea erabaki zutela azaldu du Auzapez Jaunak. Gainera, ez da auzapezaren iritzia aholku-irizpen soilerako den, Prefetak erabakitzen duen edo eremu zehatz batean burutzekoa den ikerketaren lehen denbora-tarte hori zertan datzan azaltzen zuen txostenik. Mehatzearen eragina ezezaguna da eta, hiru urteren buruan ustiatzeko baimen galdea pausatu delarik, lur aldaketa edo lubaki handiak egiten diren ez da zehaztu. Auzapez jaunak, proiektuari kontra egiten ahalko zaionik dudatzen du. Egin diren kritika eta iradokizunak kontuan hartu dituela adierazi da eta Prefetari igorrita dion gutuna irakurri du zeinean, ingurumenean, laborantzian, lurpeko geruzan eta gune babestuetan (Natura 2000, SCOT-aren baitan diren TRAM berde eta urdinak) izan dezakeen eragina ezagutzen ez duenez iritzi biziki dudakoa duela adierazten baitio.

Hiriart-Urruty Andereak, gai honi buruz erran du: “gutxienekoa informatzea zen, proiektu honen berri prentsaren bidez irailean baizik ez baitugu ukan. Zinegotzietan mezu elektronikoko bat igortzen ahal zitzaien txostena kontsultatzera etor zitezkeela erranez”.

Auzapez jaunak ez zuela publiko egiten ahal erantzun dio.

Hiriart-Urruty Andereak, zinegotziak informa zitzan baizik ez duela galdegiten zehaztu du.

Auzapez Jaunak kontsultatzera joan daitezkeela erantzun dio.

Hiriart-Urruty Andereak gehitu du, txostena agorrilaren 12tik herriko etxean dela eta bere taldeak lehenago jakin nahiko zukeela.

Auzapez Jaunak adierazi du lehenik Herri elkargoko beste auzapezekin aipatu behar zuela estimatu duela eta iraila hastapenean hala egin zuela. Auzapez anitzek, ez baitituzten nondik norakoak ezagutzen, ez zuten iritzirik eman nahi izan. Txostena eskatzaileak pausatu zuela oroitarazi du. Indarrean den araudiari buruzko zein hautetsien erabakiaren norakoari buruzko argibiderik ez da gehitua izan. Hausnartu ondoren, ezin duenez erantzun, duda handiak dituela jakinarazi du Auzapez Jaunak.

Aizaguerre Andereak erran du, saioan zehar Auzapez jaunak Prefetarekin egon zela adierazi duela eta ea gaia aipatu zuten galdegin dio.

Auzapez Jaunak ezezkoarekin erantzun dio.

Hiriart-Urruty Andereak Herriko kontseiluari jakinarazi dio, irailaren 25erako Uztaritzen gai horri buruzko bilkura publikoa antolatzen duela CADE-ek.

Auzapez Jaunak denak gonbidatua direla gehitu du, bilkuran diren hautetsiak barne.

Auzapez Jaunak beste galderarik zenez galdegin du.

- Hiriart-Urruty Andereak dio uztailaren 20ko aitzineko Herriko kontseiluan ez zela egon eta PLU-HTParen 5. aldatetari dagokion erabakien laburpena irakurtzean agertzen dela: “Herri elkargoa erosten ari den lur batean aktibitate ekonomikoa garatu ahal izateko 2AUy gune bat”. Herri elkargoak Choumieniako lur hori erosi nahi zuenik ez zuela sekulan entzun adierazi du.

Auzapez Jaunak Herri elkargoko lehendakariarengandik eta bestetik, ekonomia batzordeko lehendakari Jean-Michel Lamerens Jaunarengandik hurbiltzera gonbidatu du. Bestalde Mediabask astekariak herri elkargoko lehendakariari eginiko horri buruzko elkarrizketa argitaratu du. Honek, hastapen batean, Larresorok Pelenbordako lur guziak saldu nahi zituen, beste lur batzuen lurzoru-erreserban sartu aitzin. Herri elkargoko bulegoaren bilkura batean, proiektu horrendako Tokiko Jabetza Establezimendu Publikoa (TJEP) deitzea pentsatu zen.

Auzapez Jaunak zehaztu du, Herriko kontseilu hartan erran zela behar bada ez zela urbanizatzeko operazio bat tratatu behar eta, Kanbo ez zedin beste herri batzuk bezala ohetegi bilaka, proiektuari lurak erreserbatzeko aukera gehitu behar zitzaioela ondoren aktibitate ekonomikoa sortzeko. Urbanizatzeko dokumentu horietan, herriak enplegua sortuko luketen enpresei harrera egiteko posibilitatea atxiki behar du.

Hitiart-Urruty Andereak gehitu du Herri elkargoak ez zuela sekulan lur hori erosi zuenik erran. Idatzia da: “eroste bidean”, ez delarik eroste bidean.

Auzapez jaunak erran du gai hori bulegoaren bilkuran aipatu zela.

Hitiart-Urruty Andereak zehaztu du dossier hori ez zela elkargo kontseiluan tratatu.

Auzapez Jaunak ihardetsi dio ez duela sekulan Elkargoko kontseiluan bozkatu zenik erran.

Hitiart-Urruty Andereak azpimarratu du Herri elkargoan, Elkargoko kontseiluak bozkatzen duela. Lur hori Natura 2000 zonaldearen eragin pean da.

Auzapez Jaunak azpimarratu du eztabaida hori iragan Herriko kontseiluan eman zela eta ezin dela jadanik harturiko erabakirik gibelera bota.

Hitiart-Urruty Andereak ohartarazi du, bidearen beste aldeko lursailean 89 etxebizitza eraikitzeari dagokionez, bi hektareak Herri elkargoari erreserba ekonomiko baten egiteko saltzen balitzaizkio proiektua eginen litzatekeela.

Auzapez Jaunak erantzun dio, lursail horien jabeei jakinarazi zitzaioela proiektu hori onargarria litzatekeela, herria segur balitz etorkizun hurbilean Kanbon garapen ekonomikoa bermatzen ahalko litzatekeela soilik. Lursail horien jabeei, Herri elkargoko eta “ekonomia” batzordeko lehendakariekin harremanetan sartzeko eskatu zitzaie eta bulegoaren bilkuran printzipiozko adostasuna onartu zen. Herri elkargoko lehendakariari konfirmazio gutun bat igortzea eskatuko zitzaion. Auzapez jaunak Mediabasken agertu artikulua irakurri du zeinen agertzen baita: “Herri Elkargoko lehendakaria den Paul Baudryk, Herri elkargoak helburu ekonomikoa duten lursailak bereganatzeko beharra duela konfirmatu badu, gaur egun Navarre etorbideari dagokion proiekturik ez da finkatu baina, gure elkargoarentzat lur jabetza mailan jokoan dena garrantzitsua izanik, lursail hori 2AUy-an gelditu beharko balitz epe luzerako proiektuentzat gure esku egon dadin nahiago genuke”.

Hiriart-Urruty Andereak azpimarratu du Herri elkargoko lehendakariak ez duela lurra erosiko denik erraten. “Ez bada egiten, 89 etxebizitzako proiektua peko errekarat joanen da? Baldintza hori zen” galdegin du.

Auzapez Jaunak zehaztu du, herriak bi operazioak uztartu nahi dituela eta Herri elkargoak edo TJEP-ak, lursaila lurzoru-erreserba gisa azken honentzako erosten duela. Paul Baudry Jaunak, aktibitate ekonomikoaren lekualdatzera bideratua den Pelenbordako eremua bukatu nahi du lehenik. Bi edo hiru lursail gelditzen dira enpresa berrien hartzeko. Haien helburua ez da enpleguak atxikitzea soilik baina, instalatuko liratekeen enpresen bidez, berriak sortzea ere. Baudry jauna jabeekin salmenta prezioaren inguruan solastatu da eta adostasun batera irisi dira. Herri elkargoko eta “ekonomia” batzordeko lehendakariak duten gogoia da hori eta Herri elkargoa edo TJEP-a Kanboko bi hektareako lursailen eroslea izanen da, biharko garapen ekonomikoaren onerako.

Hiriart-Urruty Andereak etxebizitzak egitea pentsatzen duen promotorearen izena galdegin du.

Auzapez Jaunak Kaufman et Broad dela erantzun dio.

Hiriart-Urruty Andereak galdegin du zergatik, dokumentua irakurri duelarik ikusi duen: “Christian Devèzek behin eta berriz galdegin eta”. “herriak aldaketa bat egitea erabaki du berrikuspen sakonean girelarik”.

Auzapez Jaunak ihardetsi du, Mediabaskeko kazetariari erran zion bezala, Herriko kontseiluko iragan saioan gai horri buruzko mamiaren inguruko eztabaida lasaia egon zela eta ez zuela ahobatezkotasunik eskuratu. Oposizioak proiektuaren kontra bozkatu zuen eta gehiengoko zinegotzi batzuek ez zuten bozkatu. Gehiengoaren baitan talde eztabaida burutu zen eta proiektuak ez zuten ahobatezkotasunik lortu; jendeak bere iritzia eman ahal izan zuen, demokraziaren onerako. Auzapez Jaunak erran du, Devèze Jaunak espresuki galdeginik, bi operazioak uztartu behar zirela erran zela. Christian Devèzek hastapenetik adierazi zuen urbanizatzeko bat izatekotan, jabeak lurra saltzera engaiatu behar zirela Euskal Herriko enplegua eta garapena bermatuko zuen aktibitate ekonomikoaren alde. Hautetsiek HTP-ak ekonomiaren garapena eta enplegua bermatuko duten guneentzat atxiki behar dituzte.

Hiriart-Urruty Andereak erran du bere taldeak ekonomia erreserbak egotearen aldekoa dela.

Devèze Jaunak erran du biziki nahigabetua dela entzun berri zituen erranengatik. Lur horien jabe den Kanboko Francis Salagoityren laguna dela adierazi du. Salagoity – Colbert familia Kanboko familia zahar bat da, herriaren sartzean lurra dituen, eta horiekin nahi duena egin dezakeela. Egungo hirigintza arauak bilakaerak jasan ditzakete eta Colbert eta Salagoity familien haurrek edo bilobek behar bada beste proiekturik ukanen dute. Hori izan zen behin eta berriz galdegiteko arrazoin bakarra, aktibitate ekonomikoari loturiko eremu bat egon dadin, baina ez du inolaz ere HTP-aren aldatzea edo berrikustea xerkatzen zuen prozedura baten alde egin.

Hiriart-Urruty Andereak galdegin du “zergatik ez itxoin HTP-a bukatzea, zergatik holako presa? Ez zen Kanbon instalatze galdegiten zuen enpresarik”.

Devèze Jauna ihardetsi dio, proiektu hori hauteskundeak baino lehenagokoa dela. Ez dela batzuk beste batzuk baino gehiago laguntzeko interes berezirik.

Auzapez Jaunak gehitu du ezin dela aitzineko saioetan aipaturiko gaien inguruko eztabaia arrahartu, batez ere erabakiak izan direlarik. Gai hori eztabaidatua izan zen, iritzia zabal azalduak bai oposizioaren zein gehiengoaren aldetik.

- Bacardatz Jaunak galdegin du, ea Arnagako agorrileko antzerki gaualdien diru mailako bilana eskuratzerik baden, baikorrak edo ezkorrak izan diren jakiteko.

Auzapez Jaunak, hitza Pontacq Andereari eman aitzin, aitzineko kontseiluan uztailan iragan zen “Chantecler” antzerkiari buruz erran zuena oroitarazi nahi duela erran du. Zailtasunak izanez gero herriak tropari irabazien zati bat eman ordez osoa emanen ziola erabaki zen. Bi emanaldi eman behar zituzten baina aro txarra izan zela eta bakarra eman ahal izan zuten. Antzezleek xapela pasatzean gehienez 400€ eskuratu ohi zutela adierazi zuten. Gaualdi bakarrarekin 1 600 €-ko saria haienganatu zuten eta troparen zuzendariak eta antzezle batek Auzapez jauna eskertzeko eta ondoko udan berriz jiteko prest zirela errateko deitu zuten.

Michelena Jaunak adierazi du ez dela konpainia bat eta xapelaren metodoa horregatik baliatzen dutela.

Auzapez Jauna gehitu du Parisera joan behar izan zen batean antzerkia ikusteko parada izan zuela. Haien lan egiteko moldea azaldu zioten. Oraindik profesionala ez den konpainia bat ez den arren, Auzapez Jauna gazte batzuk lagundu izanagatik uros agertu da.

Pontacq Andereak adierazi du, agorrileko lehen gaualdirako 184 txartel saldu zirela eta urririk banatzen zirenak gehituz 200 pertsona izan zela Compagnie de la Reine ikustera. Emanaldiak 3 600 € kostatu zuen eta horri bost geln alokatzea eta otorduak gehitu behar zaizkio. Bigarren gaualdiari dagokionez, 300 sartze baino gehiago saldu ziren. Théâtre du Versant-en emanaldia 400 pertsonak ikusi zuten. Herriarentzako kostua: 700 €. Mozorroturiko antzezleak dohainik jin ziren, baina herriak 1000 €-ko ostatuemate eta otordu fresak bere gain hartu zituen baita su artifizialak ere.

Bacardatz Jaunak su artifizialen fresak nork ordaindu zituen galdegin du.

Auzapez jaunak herriak hartu zituela erantzun dio. Usaian su artifizialak uztailaren 14an izaten dira. Auzapez Jaunak, herriak diruz laguntzen duen besta komiteak antolatutik festetan beste su artifizial bat izan zela gehitu du. Arnagan antolatu ziren veneziar liluramendua ikusgarri piroteknikoarekin bukatu zen.

Bacardatz Jaunak adierazi du bere taldeari erran diotela kanboar batzuk ikusgarria ikustera 23 orenetan joan zirela eta sartzea ukatu zirela. Zergatia galdegin du, Arnagako su artifiziala beti urririk izan baita.

Auzapez Jaunak erantzun dio udako antzerki ikusgarria zela eta veneziar liluramenduaren baitan hiru atal zeudela: commedia dell'arte bat, veneziar inauterietako jende mozorrotuaren desfilea eta ikusgarri piroteknikoa. Ordaindu behar zen osotasun baten baitan zirela eta hala iragarria izan zela.

Bacardatz Jaunak erran du gaualdi horien bilanean entzun berri duela, sartzeek ikusgarria eta veneziarrak ordaintzen zituztela eta ikusgarri piroteknikoa herriak ordaintzen zuela. Herriak ordaintze zuenez, Kanboarrak su artifizialera konbidatzen ahal ziren.

Auzapez Jaunak adierazi du udako egitarauak hiru gaualdi zituela argiki errana izan zela: herriak nahi izan zuen arrakasta handiko Benito Lertxundiren kontzertua, zeinarentzat 900 pertsona agertu baitzen, Courtelinen antzerki bat Arnagan eta jadanik aipatu ditugun hiru elementuak barne zituen festa veneziar bat. Kanboarrek, hirigunean su artifizialak gozatzeko aukera izan zuten festen denboran. Ez da iruzurrik egon, molde horretan iragarri zen euskarri mediatiko guzietan.

- Bacardatz Jaunak adierazi du, aitzineko Herriko kontseiluko saioan Arnagako argien pausatzearen gualdiari buruzko galdera egin zuela eta Auzapez Jaunak obren batzordea lanen behin betiko bukaerako gualdira gonbidatuko zela. Gualdia iragan den galdegin du.

Auzapez Jaunak ihardetsi dio obren gualdia iragan dela eta puntu batzuk hobetzekoak direla. Herriak burutu duen eta osatzekoa den atala da. Philips enpresak proposamenak luzatu behar ditu.

Bacardatz Jaunak azpimarratu du batzordea ez dela gualdira gonbidatu.

Auzapez Jaunak zehaztu du, elementu guziak izanen direlarik bilana eta ondoko programa aurkeztuko dela.

- Aïçaguerre Andereak adierazi du mutualitatea plantan ezartzeari buruzko gutuna igorri duela herriko etxera. Auzapez Jaunak erantzun ziola gaia gizarte gaietako batzordean aipatu zela eta St Jean Jaunak arrapostu bat eman zuela. Bilkura agiriak eginen balira ez zukeela gutun hori igortzerik izanen azpimarratu du. Bilkura hartan egon zen Argitxu Hiriart-Urrutyk, hamar kidekoa den batzorde horretara hiru baizik ez zirela joan erran diola eta gai horri buruzko erantzunik ez zuela erran ziola adierazi du.

St Jean Jaunak ihardetsi dio, Vincent Goytino egon zen bilkura hartan, herriak gela bat eskuragarri utziko duela erran zela.

Hiriart-Urrutyk dio du ezetz; “zuk erran duzu: bai zera uste dugu, baina aipatu dugu ez, baina ez zinen hor azken kontseiluan. Hori ez da nehon agertzen, ezta herriaren webgunean ere? Ez dut arraposturik ukan”.

Aïçaguerre Andereak adierazi du herriak gela bat eskuragarri ezartzen badu, herriak partaidetzarik izenpetzen ez duela erran nahi duela eta ondorioz ezetz dela. Auzapeza kide den Association de Maires de France elkarteak hori ontzat eman zuen. Ondorioz, herriak zergatik ez luke egiteko eskubiderik?

Auzapez Jaunak zehaztu du Association des Maires de France elkarteak erran duela herriek gela bat eskuragarri ordainduz ezar zezaketela eta Kudeaketa Zentroak berriz ere bere posizioa berretsi duela.

Auzapez jaunak gehitu du herritarrek zerbitzu horiek eskuragarri ukaitea garrantzitsua dela eta herriak aktiboki eta dohainik (gela bat dohainik prestatzea) parte hartzen duela, permanentziak bermatuak izan daitezen eta herritarrek, nahi izanez gero zerbitzu horiek balia ditzaten.

Aïçaguerre Andereak galdegin du Kudeaketa Zentroarekin elkar trukaturiko gutunen kopiarik ukaitea posible denez.

Auzapez Jaunak baiezkorekin erantzun dio eta oroitarazi dio hautetsiak direnetik behar dutenarendako haiendako hor dela erran diela baita, hitzordua hartu eta Herriko kontseiluaren gai ordena kontsultatzeko, zerbitzuen zuzendari nagusia ere baina oposizioko hautetsiek ez dutela egiten.

Aïçaguerre Andereak adierazi du FNACaren diru laguntzen eskaera dosierra galdegitera berriz izan dela, baina ez dela oraindik pausatua izan. Irailaren 3an izan zela.

Auzapez jaunak erantzun dio dosierra pausatu dela eta dokumentua aurkeztu dio.

Goytino Jaunak zehaztu nahi izan du, gizarte gaiei buruz hartu den posizioa dela eta, herriak ez duela denentzako mutualitate horri buruzko publizitaterik eginen errana izan dela, informazioa herritarrengana iritsi dadin gela bat eskuragarri utziko dela baina ez dela dispositibo horri buruzko promoziorik eginen.

Hiriart-Urruty Andereak erran du ulertu duela baina erantzun argirik ez ukaitea dolu dela.

Goytino Jaunak erran du hola errana izan zela eta erantzuna ez zela behar bada argia izan.

Devèze Jaunak adierazi du urte batzuk lehenago Crédit Agricolek tasa onduetan saneamendu kolektiborako laguntza eskaini zuela. Garaian jadanik Crédit Agricole-aren proposamena sustatzea posible zenez aztertu zen. Ezezko erantzuna jaso ginuen, herria ezin baitzen banketxe zehatz batean hartzaile izan. Horregatik mutualitatearen galdea pausatu delarik Devèze Jaunak hori legala zen egiazta zedin galdegin du, beste batzuen kalterako asurantzua konpainia edo artekari bati lehentasuna ematea suposatuko bailuke. Auzapez Jaunak gela bat eskuragarri ezartzea proposatu zuen. Ez zen jendeari baliabide hori ukatzeko, juristek legez kanpokoa dela erran zutelako baizik.

Hiriart-Urruty Andereak erran du “historiaren funtsa, diru sartze apalak dituzten Kanboarrak mutualitaterik gabe uztea da”.

Bardin Jauna azpimarratu du herriak gela bat eskuragarri utzi duela.

Auzapez Jauna ez da ados agertu saioetan gezurrak erranak izan daitezen bilkura agirietan idatziak direlakoan. Herri batek lokal bat urrikeri eskuragarri uzten duelarik zerbitzua proposatzen duen elkarteari kanboarrak ikustea ahalbidetzeko eta bere produktua ezagutzera eman dezan, ezin da erran herriak ez duela parte hartzen. Herriak, bi aldiz erantzun bera eman duen Kudeaketa Zentroak erran duena kontuan hartu du, eta oposizioko kideak dosierra begiratzera gonbidatu ditu. AMF-ek herriak gela bat ordain araziz presta zezakeela adierazi zuen baina, Biarritzek bezala, gela dohainik eskuragarri uztea erabaki dela. Kanboarrak arduradunekin biltzen ahalko dira.

Saioa 23:05etan bukatu da